




Iristeko zailtasuna: 1/3
Aztarnak: 3/5

Kokapena eta egitekoak

Jaizkibel mendiaren konkorrak garaienean, Allerru izenekoan, itsas mailatik 545 metrora, liberalek bizitza laburreko gotorleku bat eraiki zuten Bigarren Karlistaldian, eta horren aztarnak oraindik ikus daitezke, lozorroan, tontorraren inguruan.

Goialde horretatik urrunerako ikuspegiak daude itsaso aldera eta, eguraldia lagun, Matxixakotik Landasko hondartza amaigabearainoko lurra beha daiteke. Hala ere, gotorlekuaren egitekoak mendian bertan eta beste aldera begira zeuden, hegoaldera. Harantz ere ikuspegi zabalak daude, beraz, bisita ezinbestekoa da. Gipuzkoako txoko horretatik lurralde osoko mendirik garaienak ikusten dira; baita Larrun eta Pirinioetako hasierako gailurrak ere, hego-ekialdean. Behean, Gaintxurizketako bazterrak daude, bi trenbide eta N-1 errepidearen igarobideak direnak.

Krisialdi hartan, liberalek San Enrike eta mendi-bizkarrean zehar zeuden beste eraikin batzuk eraiki zituzten euren bi eskualde lotzeko asmoz, Irun-Hondarribia eta Donostialdea, hain zuzen. Hasiera batean, mendiak berak izan behar zuen igarobidea, eta bidea babestearren altxatu zituzten forte eta dorretzar horiek. Baina geroago, gobernuaren soldaduek eskualde hori berreskuratu zutenetik aurrera, Errenteria eta Irun arteko errege bideak bete zuen lan hori. Ondorioz, San Enrike bigarren mailan geratu zen, eta toki garai horretatik babesa eskaintzen zion igarobide berriari, bere kanoien bidez hegoaldeko mendialdeak bonbardatuz.

Historia

Jaizkibelgo gainik garaienaren Allerru izena nahiko ezezaguna bada ere, askoz hedapen txikiagoa dute Eskulain, Iskulin eta antzeko aldaerek, toponimiari



Ipar itxitura alde horretako irtengunearekin, IE-ko izkinatik begiraturik. Atzerago, Jaizkibel mendiaren mendebaldea, itsasertza eta itsasoa.

buruzko lanek jasotzen dituztenak.

Militarrek euren txostenetan, bestalde, Olearso izenez ere ezagutzen zuten Jaizkibel mendia Bigarren Karlistaldian. Horren harira, teoria baten arabera, Oiasso erromatarra Irunen zegoen bitartean, beste Oiasso indigena bat Jaizkibel mendian kokatu zen, goialderen batean. San Enrike gotorlekuaren orubean bertan, 1979. urtean, sator batek brontzezko txanpon handi bat atera zuen, Kristo ondoko 96. urtekoa dela esan daitekeen Nerva enperadorearen irudia duena. Hala ere, 1985. eta 1986. urteetan egindako arkeologia indusketetan, hondakin modernoak eta XIX. mendeko jarduera militarri lotutako gauzak baino ez ziren aurkitu. Dena dela, zenbait arkeologok oraindik ez dute amore eman eta uste eta esaten dute gailurrean gutxienez talai bat edo seinale-dorre erromatar bat altxatuko zela. Bestalde, Venus jainkoari eskainitako tenplua hor nonbait zegoen.

Eskualde horrek, Bidasoaren eta Pasaiaren artekoak, zenbait gerra jasan behar izan zituen, nazioartekoak edo zibilak, baina Bigarren Karlistaldi dagozkio Allerruko aztarnak eta ez dugu gotorleku aurrekariren baten inguruko berririk aurkitu aurreko liskarretan. Lehenengo Karlistaldian, Lacy Evans jeneral ingelesa igaro zen Jaizkibeletik britainiar legioarekin eta, hilabete batzuen ostean, Espartero jenerala, karlisten menpe zegoen Hondarribia erasotzera, baina ez dago inolako gotorlekuri buruzko aipurik.

Bigarren Karlistaldian, 1874ko udaberriarako liberalak

Gotorlekua mendiaren tokirik
garaienean, mendebaldetik.



Gipuzkoako herri gehienetatik alde eginak ziren. Baina lehenengoan ez bezala, gerra horretan Irunen eta Hondarribian gelditzea erabaki zuten agintari liberalek, bertako herritarren sostenguarekin. Halere, bakartzea setio bihurtu zen laster, udazkenean, karlistek Irun hartzea erabaki eta kanoikadak hasi zirenean. Hiria hartzeaz gain, ekintza militar horretan jokoan zegoen estatuaren eta matxinoen nazioarteko ospea, Lapurdin zeuden hainbat ikusle atzerritarren aurrean, gainera.

Gobernuaren armada laguntzeko prest agertu zen, eta lurretik hurbiltzea erabaki zuten. Hernanitik Urnietari zuzendutako eraso faltsu bat egiteaz gain, Pasaian lehorreratu berriak ziren soldadu talde batzuk San Marko edo Bizarain mendia ere hartu zuten Errenteriatik, engainatzeko beste mugimendu baten baitan, benetako eraso Jaizkibel aldera egin baitzuten liberalek 1874ko azaroaren 10ean. Liberalak harrituta gelditu ziren karlistek ez zutelako mendi hori gotortu, lubakiren bat salbu, eta uste baino errazago igo eta iritsi ziren Irunera. Biharamunean, Irungo setioa bertan behera utzi behar izan zuten tradizionalistek.

Itsasoz gain, Irun eta Hondarribiarekin lurretik ere komunikazioa mantentzeko asmoz, liberalek Jaizkibelgo hainbat puntu gotortzeari ekin zioten eta, lanak babesteko, batailoi bat jarri zuten Errenteria, Pasaia eta Jaizkibelgo puntu horien artean sakabanaturik. Santa Barbara, gailurretik gertu, eta Guadalupe baselizak gotorleku bihurtu eta handik babesten zituzten bost dorretzarren eraikitze-lanak. Baina 1875eko maiatzean, Orio eta Usurbil utzita, liberalek soldadu gehiago zituzten Jaizkibel benetako igarobide erabilgarri bihurtzeko. Hiru batailoi eta mikelete konpainia bat Pasaiatik abiatu eta Irungo beste batailoi bat Guadalupe baseliza gotortuan kokaturik, Jaizkibel osotik karlistak uxatu zituzten eta ekainaren hasieran beste gotorleku bat eraikitzen hasi ziren, San Enrike, Jaizkibel mendiko nagusia bilakatu zena.

Abuztuaren bukaeran, Trillo jeneralak hartu zuen aldi baterako Gipuzkoan zegoen armadaren ardura. Frente osoa bisitatu ondoren, 1875eko irailaren 9an egoerari buruzko txosten bat igorri zuen Madrilera. Jaizkibeli dagokionez, lau dorretzar bukatuta zeudela eta "... 3.ean 12 lanegun falta direla, baina bere burua defenda dezakeela" jakinarazteaz gain, zera zioen: "*San Enrike gotorlekua, bere kokapenagatik lehen Eskulin [Ixkulin] deitua, oso atzeratuta dago eta ez dauka artilleriarik; zabaldegiak egiten ari dira, eta agindua eman dut 12 eta 8ko pieza bi ezartzeko, uste baitut nahikoak direla. Itxita dago eta infanteriak inolako eragozpenik gabe defenda dezake*".

Eta Jaizkibelgo igarobideari buruz, Irunerako bidean oro har: "... ene gogoan Jaizkibel bidezko komunikazioek eragin dituzten sentsazioak. Igoera luze, tamalgarri eta nekeza, ezin baita osorik zaldiz egin, mendiaren behealdean Irungo bidea ikusiz eta ia ukituz; (...), apur bat depresiboa deritzot hain dibisio jendetsua-
rentzat Hondarribian eteten den komunikazio bati, non nahitaez itsasoratu behar den".

Bisitak bultzatu zuen jenerala egun batzuk geroago hurrengo pausoa ematera, oraindik bukatu gabe zegoen San Enrike gotorlekuari garrantzia kendu ziona. Oraingo honetan, Getarian aurretik mugimendu faltsu bat eginda, karlistak hara hurbilarazteko, gobernuaren soldaduek eta mikeleteek Irungo Elatzeta eta Zubeltzu gainak eta Oiartzungo Arkale eta Urkabe, Elizalde auzoaz gain, hartu zituzten irailaren 15ean. Horrekin, Errenteria eta Irunen arteko lurreko komunikazioa ahalbidetuta geratu zen eta baturik geratu ziren liberalen Gipuzkoako behin betiko eskualdeak, Getaria izan ezik, bost hilabete geroago gerra bukatu zen arte. Diligentzia-zerbitzua eta guzti berrantolatu nahi izan zuten gerra amaitu baino lehen, Jaizkibelgo bidea zeharo ahaztuta. Hala ere, konboiak antolatu behar ziren eta Jaizkibelgoak jarraitu zuen izaten ohiko bidea,

elurrak handik igarotzea galarazten ez zuenean.

San Enrikek jardunean jarraitu zuen, gerraren amaieran Hondarribiaren eta Pasaiaen arteko lerro gotortua deiturikoan. Bertan, soldadu konpainia bat zegoen, eta mendiko dorretzar bakoitzean lau soldadu eta kabo bat. Elurra zela eta, soldadu-talde horiek egun askotan geratzen ziren hornidurarik gabe.

Gerra 1876ko otsailean bukatuta, fortea erabiltzeari utzi zioten, modu eraginkorrean, behintzat, eta inguruko alkateei helarazitako ekainaren 18ko zerrendan *"Bere egunean erabil daitezkeen forte hauek ez da komeni suntsitzea, nahiz eta okupatu ez. Itxi eta kontserbatzeaz arduratu behar da"* zioen atalean sailkatu zuten San Enrike.

Uztailaren 25ean, biharamuneko *"goizeko lehenengo orduan"*, Donostiako Ingeniarien komandantziatik 20 gurdi eskatu zizkioten Errenteriako alkateari fortea husteko.

1890eko urriaren 20an, errege agindu baten bidez, Oiartzungo esparru gotortua eratzea erabaki zuten Espainiako agintariek. Bereziki zortzi gotorleku erraldoik gauzatu behar zuten asmoa eta horietako bat Jaizkibelgo gailurrean eraikitzea zen, Jaizkibel izenarekin. San Enrike gainean egotekoa zen, Bidasoako mugatik bigarren lerro batean, baina hasi ere ez zuten egin.

1896an, arerioen lehorreratze baten beldur, Madriletik eskaera egin zieten kostaldeko lurraldeetako militarrei euren esparruetarako plan bat proposa zezaten. Donostian bildutako buruzagi militarrek, besteak beste, *"... San Enrikeko gotorleku hondatuaren kokalekuan"*, lehentasun osoz kanoitegi bat eraikitzea proposatu zuten, lau obusekin, baita beste zazpi kanoi eta obusentzako lekua eratzea ere. Pasaiaiko bokalaren defentsari laguntzeaz gain, argudiatu zuten gotorlekuak Guadalupe forteari lagundu behar ziola arerioen itsasontziak uxatzen eta Jaizkibel mendia bera kontrolatzen. Ez zuten ezer egin, baina plan horren baitakoa da Monpas kanoitegia. Urte hartan bertan, halaber, urte hasierako txosten batean Jaizkibelgo tiro-eremua egiteko *"(...) eraikitzen ari den Guadalupeko fortearen eta San Enrikeko suntsituaren artean lursail bat dago (...)"* esaten zen, gotorlekuaren egoera berriro azpimarratuta.

Hego irtengunea, fortearen barrualdetik begiraturik.
Aurrean, idazkiak dituen harria. Atzerago, paisaia, Oiartzungo lurrak, Irun, Larrun mendia, Aiako Harria...

Dena den, militarrek jarraitu zuten gotorlekua noiz-behinka erabiltzen, inguruan mantendu baitzituzten XX. mendearen azkenaurreko hamarkadara arte Guadalupe gotorleku hori eta Jaizkibelgo tiro-eremua. Lehenago ere, 1936ko gerran, errepublikanoak San Enriken bertan gotortu ziren fortea lubaki gisa erabiliz, baina, matxinatuek haranetik aurrera egin zutenean, bakarturik ez gelditzeko utzi behar izan zuten. Halere, gertaera horren ondoren, aztarnen suntsiketa areagotu egin zuten militarrek. Jaizkibel gotorlekuaren asmoa gauzatu ez zenez, tontorretik bertatik eta handik ekialderako magaletatik Guadalupe fortea eraso zitekeen.


Egun, San Enrikeren hormez barruko esparruari Baziliko Arkeologia Gune izendapena eman diote, tokia babestuta, baina horrek ez du geldiarazten murruek jasaten duten eguneroko narriadura.

Egitura eta Aztarnak

Inguru osoan, perimetro osoan, gotorlekua ixten zuten murruek ikus daitezke oraindik, mendiko bideek zehar-katzen duten tokietan desagertzen ari badira ere.

Oinplanoak trapezio baten antza du, oinarria mendiaren gailurrerian zedarrituta (hegoaldeko itxitura) eta gainontzeko guztia mendiaren iparraldeko maldan zehar hedatuta. Hegoaldeko eta iparraldeko itxituretan, gutxi gorabehera erdialdean, irtengune edo bastioi triangeluar bana daude, bukaera biribilekin, eskindegi erakoak biak. Horietaz gain, trapezioaren oinarria hainbat metro luzatzen da bi aldeetara mendibizkarrean zehar, defentsarako belarriak eratuz, eskindegi erdiak, alegia. Dena den, aitortu beharra dago oinplanoa ez dela trapezio bat, arestian esandakotik





1874-X-24. *Le Monde Illustré* aldizkaritik hartutako irudia. Hondarribia.

askoz kaskarragoa baita. Zabalera 0,90 metrokoa da toki gehienetan, baina batzuetan 0,80koa. Garaiera, kanpoaldetik begiratuta, hiru metrora iristen da oraindik inon, baina, egun, inguru gehiena euste harresiz dago osatuta, besterik ez, barrualdeko lurraren mailari eusteko, alegia, karelak edo parapetoak galduta. Iparraldeko murruan bereziki, barrutia mendi-maldan dagoelako, euri-ura kanporatzeko isurbideen zuloak ikusten dira. Hegoaldeko itxituran, mendebaldeko belarrian, esate baterako, zuloren bat ikus daiteke. Barrualdean, ordokiren bat eta laukizuzenak markatzen dituzten harri ilara batzuk eta bestelako murruen oinarriak ikusten dira, fortearen garaiko barrualdeko eraikinen lekukoak. Agirien arabera, bi barrakoi zeuden soldaduei aterpe emateko. Hegoaldeko irtengunetik gertu, harritzar baten bi aldeetan hitz batzuk ageri dira zizelkatuta. Alderdi batean, harriaren alde zabalenean, 1914 urteaz gain, besteak beste, S.S. eta *Exploradores* irakur daitezke. Hankaz gora dago orain harri hori, idatzi ondoren bere tokitik aterata.

aparte ekialdeko eta mendebaldeko itxiturak ez baitira luzera berekoak. Bestalde, inguruan, harresiei atxikirik, ez dago lubanarroen zantzurik. Gehieneko neurriak ondokoak dira: luzera hegoaldean, bi belarrien kukulen artean, 83 metro; zabalera, hegoaldeko eta iparraldeko irtenguneen puntun artekoa, 38'2 metro; perimetroa, hainbeste irtengune eta bihurtuguneekin, 228'4 metrora iristen da. Harrearri handiz eginak dira murrak, gutxi landuak eta eustorez eutsita, baina hori murraren azalerara mugatzen da, harresi barnekoaren betegarriaren harria

Iristeko:

UTM koordinatuak: X = 592.806; Y = 4.799.998
Jaizkibel mendia zeharkatzen duen Pasai Donibane – Hondarribia errepidearen (GI-3440) toki garaienetik gertu, Jaizkibel mendatea 455 metrora adierazten den lekuan, 9'5. kilometroan, errepidetxo bat abiatzen da gailurreko antenetara. Dena dela, antenen gunera iritsi baino lehen, bidegurutzetik 0,9 kilometrora, autoa aparka daiteke, ezkerretara eta gorago baitaude gotorlekuaren aztarnak.

1875-IX-16. San Enrike fortearen plano eta soslaiak. (AGMM).

